itsasondo 2.0
Herriko Aldizkaria (((48. zk))) maiatza 2021

Lurdes, merezitako agurra

Elkarrizketa: Tere Etxeberria
Zaborra guztion ardura
Herritarrak protagonista (Mikel eta Josu)

Agurra

Udaberria gure herri, baso, zelai, mendi eta gainerako txoko eta bazterretara iritsi den moduan, gu ere saiatu gara **Itsasondo 2.0** aldizkariaren 48. zenbaki honetan berri eta gai berriak erna daitezen; zorionez, biziztak jarraitu egiten du, eta, Itsasondo herri bizia den erakusgarri, herriko berri eta gertakariak. Hala ere, ez dugu ukatuko, gauza askotan zaharrak berri esan beharrean gara; izan ere, jada oso luze doakigun azken urtebete honetan, pandemia eta COVID-19a dira oraindik gure egunerokotasunean hizpide nagusietako bat, eta herriko bizitza eta kultur ekimenak baldintzatzen ari dira.

Udaberrian gaudenez, zer hoberik basoak aztertu eta ikastea baino. Haur eskolakoek, gure bizitzan izaten dugun unerik garrantzitsuenetako bati buruz hitz egingo digute, oinez ikasteari buruz.

Azken urte honetan gutako askok inoiz baino gehiago jo dugu inguruko mendi, baso eta natur guneetara, eta jabetu gara naturak guregan duen eragin lasaigarri eta positiboaz. Natura atalean Shitake eta Reishi perretxikoen inguruan hitz egingo digute; gure artean nahiko berriak diren arren, indarrez sartzen ari dira gure sukalde eta platerretan. Bestetik, serio jartzeko tartetxoa ere hartu behar dugu: zaborrak ondo birziklatzearen garrantzia azaltzen zaigu. Gauzak ez ditugu guztiz ondo egiten, ezjakintasunak edo utzikeriak eraginda: horrek arazoak sortzen ditu, bai elkarbizitzan, bai birziklapenean aurrerapausoak ematerako unean ere.

Lurdes Aranburu itsasondoarrak, hogei urte pasatxoren ondoren, otsailaren 26an utzi zuen Lurdes denda; herritarrek agurtu nahi izan zuten bere azken lanegunean, eta denda kanpoan bildu ziren esker ona azaltzeko, lore sorta batekin. Dendari berriak ditugu Itsasondon: Kontxi, Ihintza eta Iñaki. Lurdesena bezain ibilbide oparoa desio diegu.

Elkarrizketen tartean, Maddi Otamendi aurkeztuko dizuegu, batetik; zuetako askorentzat ezezaguna izango da, gure artean ez daramalako denbora asko, eta ea zer iritzi duen Itsasondoz... Bestetik, elkarrizketa luzea Tere Etxeberriari egin diogu; badakigu saltsa askotako perrexila dela, baina ziur berak kontatutako pasadizo asko ezezagunak zaizkizuela.

Mikel Otegi itsasondoarrak espetxetik gutuna idatzi digu, herrian egindako margolan tailerra eta jasotako elkartasuna eskertuz.

Ohiko atalak ere ez dira faltako: errezeta, udaleko berriak, bertsoa, hemeroteka, agenda, eta bidean ahaztu zaizkidanak.

Hurrengo zenbakia udarako eguzki goxoarekin izango duzue. Bitartean, ondo izan.■

Aurkibidea

03-04 **Udaleko berriak**
05-06 **Haurreskola**
07 **Eskola**
08 **Guraso elkartea**
09-11 **Zaborra, arazi uturri**
12-13 **Kulturari hauspoa emanez**
14-16 **Elkarrizketa:** Tere Etxeberria
17 **Reishi eta Shiitake**
18 **Elkarrizketa:** Maddi Otamendi
19 **Eskerrik asko, Lurdes**
20-21 **Herritarrak**
22-25 **Hemeroteka**
26 **Liburutegi txokoa**
27 **Errezeta / Euskararen atala**
28 **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Aizak hi mutil maiñontzi*

Eguna oiñez hastea
ta pausoak bereiztea
ona ezezik gomendagarri
bat eta bestea,
orbelen doinu askea
zuhaitzen berde janztea…
basoko xarmaz osa dezagun
hurrengo astea (bis)

Perretxikoen berriak
ditu Tere Etxeberriak,
Lurdesen dendak osatu ditu
agur deigarriak;
Mikel Otegik jarriak
gutuneko aldarriak
arreta biziz zabalik daude
begi-belarriak. (bis)

Zaborren bertziklapena:
bukatzen ez den problema,
norbere etxetik hasi dezagun
sailkapen ordena,
geuretzat ona ez dena
guztientzat da kondena…
ez ahaztu denon etxea dela
gure ingurumena. (bis)

Liburutegi txokoan
irakurketa gogoan,
hizkuntza ere dudarik gabe
sartzen da jokoan;
errezeta sutondoan
probatu nahia ahoan
amets gozoak bizi ditzagun
gauerdiko loan (bis)

Udaleko berriak

2021. urteko lehen hiruhilekoa joan da, eta udalean aurten ere gai garrantzitsu dezente ditugu zuei azaltzeko. Beraz, hurrengo lerroak aprobetxatuko ditugu horien azalpen txiki bat egiteko.



UDALBATZA

Urtarrilaren 25ean egindako osoko bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen:

2021eko udal aurrekontuak 1.810.000 €ko zenbatekoarekin onartu ziren. Alde nabaria dago aurreko urteko aurrekontuekin alderatuta, gehienbat egin nahi diren inbertsio garrantzitsuen ondoriozkoa:

- 2021. urtean egin nahi dira Itsasondoko baserriak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren urez hornitzeko lanak: 766.635,19 €.
- Jolastokia berritzeko lanak aurrera eramateko, 50.000 € izendaturik daude.
- Lokala erosteko 60.000 €ko partida bat, eta, azkenik, beste hainbat proiektutarako: frontoiko irisgarritasuna, basogintza berria, Elordi zelaiko plan partziala... 172.571 €.
- Inbertsio horietako zati bat dirulaguntza bidez finantzatuko da, baina beste zati bat 2020ko kreditu gerakinaren kontura eta mailegu bidez finantziatu beharko da.
- Itsasondon eraikin gehienek ez dute igogailurik, eta tramitetan hasiak dira horietako batzuetan igogailuak jartzeko. Hori aprobetxatuz, udalak egoitza eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza onartu du, eta, jendaurreko tramitazioa amaitu denez, laster izango da indarrean.
- Kale Nagusian, amaitu dira Gure-ametxa eta Egiluz Enea etxearen aurrealdeko espaloietako irisgarritasun arazoak konpontzeko obrak; 57.398,83 €ko kostua izan dute. Jaurlaritzatik 19.900,33 € jasoko dira.
- Nagusia 21ean udalak duen janari dendaren ustiaketaren tramitazioa amaiturik, erabaki da bi urterako ustiaketa ematea Kontxi Rodriguezi. Martxoaren 1ean hasi da bertan lanean.
- Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egindako deialdiari jarraituz, Herri Eskolan karpak jartzeko dirulaguntza eskatzea erabaki da.
- Urtean zehar 3-12 urte bitarteko haurrekin aisialdi jarduerak eta hala badagokio udaleku irekietan aritzeko hezitzaileen lan poltsa osatzeko deialdia egitea erabaki da. Alkate dekretu bidez onartu dira deialdia arautuko duten oinarriak.
- Autohornikuntza Fotovoltaikoaren proiektua onartu da, 57.610,72 €ko aurrekontua duena.

2021eko martxoaren 15eko udalbatzako gaiak

- Itsasondoko trenbideko pasagunea kentzeko asmoz, Adifekin zenbait bilera izan dira, eta azkenik proposatu den alternatiba da Arama aldetik gasolindegi inguruko terrenoetara sarbidea emango duena.
- Amaitu dira Itsasondoko Errota frontoiko komunak eta aldagela irisgarri egiteko obrak kontratatzeko tramiteak, eta, aurkeztu diren proposamenak aztertu ondoren, erabaki da obrak Iturrioz Eraikuntzak S.A. enpresari esleitzea, 56.673,40 €an. Lanak bost astean burutuko dira.
- Nagusia Kalean egun dagoen elikadura-lokala txikia geratu denez, erabaki da tramitean jartzea azalera handiagoa izango duen lokal bat erosteko espedientea. Apirilaren 12a bitarteko epea izango da proposamenak aurkezteko.
- 2020ko aurrekontuaren likidazioko gerakinaren kontura, 2021eko aurrekontuan kredituak aldatzeko bi espediente onartu dira, 19.331,72 €tako zenbatekoarekin.
- Ibilgailu astunekin udal herri bide eta baso bideen erabilera arautzen duen ordenantzaren aldaketa onartu da, baserritarrekin egindako herri batzarrean jasotako proposamena jarraituz.
- Mendiko abeltzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko bi mozio tratatu dira: bat ENBA elkarteak aurkeztutakoa, eta bestea EH Bildu taldeak aurkeztutakoa. Azken hori onartu da, aldeko hiru botorekin (EH Bildurenak) eta kontrako boto batekin (EAJ-PNV).

BESTE ZENBAIT ERABAKI

Elordi zelaiaren erosketa

Aurreko aldizkarietan azaldu genuen bezala, Elordi zelaiaren erosketari buruzko eskriturak joan den abenduaren 11n egin ziren; beraz, udalak lortu du lehendik zesio bidez okupatzen zituen Elordi zelaiko terrenoen jabetza osoa.

– 2.348 m²ko azalera duen saila, 2.348 €an.
– 7.573 m²ko azalera duen saila, 7.573 €an.

2020ko likidazioa

2020ko urteko aurrekontuaren likidazioa onartu da:

– 2020ko abenduaren 31n dagoena	487.971,93 €
– Kobratzeko dagoena	135.572,40 €
– Ordaintzeko dagoena	138.375,76 €
– Gerakina	485.168,57 €

Udal tasa eta zergen kobrantza likidazioak

Dirubilketa zerbitzuko 2020ko kontuen arabera, kobrantza portzentajea honako hau izan da.

– Zabor bilketa %97.
– Ibiak %95.
– Ur errolda %98.
– Estolderia %98.
– Ibilgailuen zerrenda %94,5.

Pendiente geratu diren erreziboen kobrantza exekutiba bidezko tramitea jarraituz burutuko da.

Alkate dekretuak

- Urtarrilean jasotako fakturen zenbatekoa 12.273,84 €.
- Otsailean jasotako fakturen zenbatekoa 24.450,99 €.
- Martxoan jasotako fakturen zenbatekoa 21.847,76 €.
- Udaletxeko kultur gunea eta lokalak erabiltzeko herriko elkarte, partikular eta eragileen partetik 17 eskari izan dira.
- 2020ko laugarren hiruhilekoko ur errolda onartu da, 11.693,30 €ko zenbatekoarekin
- 2021eko Ibilgailuen gaineko erroldaren zenbatekoa, 16.146,22 €.
- Obra txikien baimenak tramitatu dira: guztira, sei.
- Hutsik dauden eta %50eko errekargua izango duten etxebizitzen zerrenda onartu da.
- Gizarte larrietarako laguntzako 11 espediente onartu dira.
- Hirilurren balioaren gaineko 15 espediente tramitatu dira.
- Udal langileei soldatak %0,9 igotzea erabaki da.
- Udal tasetan laguntzak emateko 3 espediente onartu dira, eta beste 3 ezeztatu.
- Hilerrian kontzesioak emateko 3 espediente bideratu dira.
- Herriko elkarteei laguntza emateko 2 espediente onartu dira; guztira emandako laguntza, 2.709,76 €.
- Indarrean dagoen herriko baratza sailean aritzeko izan diren eskaerak ikusita, hiru sail berri antolatu dira, eta horiek erabiltzeko baimenak eman dira.

DIRULAGUNTZAK

Eskatutakoak

Herri eskolan karpak jartzeko.

Herri bideetan konponketa lanak egiteko: 2020an egin zen Itsasaga eta Iraola aldeko herri bidean sortutako luiziak konpontzeko gastua finantzatzeko, eta Saro eta Urkiako herri bideetan antzeman diren konpondu beharreko obrak finantzatzeko.

Aldundiko Partaidetza deialdia jarraituz Autohornikuntza Fotovoltaikoaren proiektua garatzeko egingo den partaidetza prozesua finantzatzeko.

Jasotakoak

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak honako hauek eman dizkigu:

- Murumendiko Basoak berreskuratzeko eta haien egoera ekologikoa hobetzeko ekimenak finantzatzeko, Lotura Eremu eta Korridoreko jarraitutasun ekologikoa hobetzeko ekimenak izeneko proiektua gauzatzeko 24.196,50 €ko dirulaguntza lortu da.
- Eskola Agenda 21 programa gauzatzeko, 666 €.
- Itsasondon ezarritako komunitate konpostaje komunitarioko instalazioetan lortutako konpostaren patogenoak kontrolatzeko, 2.329,28 €.
- Itsasondoko Irisgarritasun plana eguneratzeko, 5.400 €.■

Oinez, haur bakoitza bere erritmora

Helduek esku hartzea edo oinez irakasteko gailuak erabiltzea, lagungarri ez, baizik eta oztopo izan daiteke haurrak oinez ikasteko prozesuan. Emmi Pikler pediatraren ustez, konfiantza eta aukerak eskainiko dizkion heldu bat behar du, ez esku-hartzerik.

Ohiko irudia da: haurra tentetzen hasten denean, gurasoak, bi eskuetatik heldu, eta oinez ibiltzen laguntzen dio. Betidanik ikusi dugun argazkia da, eta erreproduzitzen duguna, haurrari oinez *ikasten laguntzeko*. Baina haurrak, uzten baldin bazaio, bere kabuz ikasten du oinez, mugitzen, herrestan, lau hankan eta ondoren korrika ikasiko duen bezalaxe. Are gehiago, Emmi Pikler pediatra eta pedagogoak frogatu zuen bezalaxe, helduak esku hartzen ez duenean, laguntzen ez dionean, bere erritmora ikasten duenean, segurtasun handiagoarekin egiten du.

Baina ohituak gaude gauzak bestela egitera, haurrari oinez ibiltzen irakastera. Mirtha Chokler psikomotrizista ezagun eta Piklerren jarraitzaileak dio gure kulturetan oso goiz ezartzen ditugula haurrak zutik, gurasoak presa balu bezala haurrak lehenbailehen ikas dezan, azkena izan ez dadin: "Buruari eutsi ezin diotenean ere bertikalean ezartzen ditugu, eta beren kabuz eseri ezin duenean, eserita; edo artean bere kabuz zutitu ezin den haur bat zutik jartzen dugu, gorputz enborrak oraindik nahiko indar ez duenean. Baina kontuan izan behar dugu postura bakoitzaren esperientzia eta bizipenetik sortzen zaiola haurrari hurrengo mugimendua egiteko iniziatiba". Eusteko oinarria gorputz osoa izatetik, etzanda egotetik, bi oinen gainean eustera iritsiko da, oinez ibiltzera, bere kabuz, libre mugitzen uzten baldin bazaio.

Mugimendu autonomo librearen kontzeptua Piklerri zor zaio. Gerra eta okupazio garaian Budapesteko erietxe eta umezurztegietan lan egitean, eta behaketari esker, ohartu zen haurrek euren kabuz, euren gaitasunetan konfiantza duen heldua ondoan dutela eta ingurune egoki batean, euren garapenaren maila gorena iristen dutela, inork ezer irakatsi gabe. Hona mugimendu autonomo libreari buruz idatzirik utzi zuen printzipioetako bat: "Haurrari mugimendu autonomo librean garatzeko behar dituen baldintzak eman behar zaizkio, eta haren gaitasunetan eta garapenean konfiantza izan: haren ekimenak errespetatuz eta ulertuz, mugimenduak eta posturak bereganatzeko prozesuan helduak esku hartu gabe".

Gorputzak nahiko sendotasun eduki gabe, hau da, haurra bere kabuz jartzen ez den arte, ez da, beraz, zutik jartzea komeni, laguntza baino gehiago oztopo izango baita oinez ikasteko bidean. Haur guztiek —elbarritasunen bat ez badute, behinik behin— garapen motorraren etapa guztiak bizitzeko gaitasuna dute: lehenik ahoz gora daudela besoak eta oinak mugituko dituzte, begirada bi alboetara luzatu, eskuekin oinak ukitu... Ondoren, ahoz gora egotetik ahuspez egotera pasako dira, eta segidan buelta osoa emango dute; eskuen gainean bermatuz zutitzen hasi eta berehala prest izango dira herrestan ibiltzeko, bizkarra zuzen dutela bere kabuz esertzeko, eta laster lau hankan mugituko dira. Hortik aurrera, mugimenduak perfekzionatuko dituzte: belauniko, heldulekurik gabe zutik jarriko dira, erori eta zutitu... eta euren kabuz oinez hasiko dira aski seguru sentitzen direnean. Eta garapenak jarraitu egingo du: korrika, oin baten gainean eta abar ibiltzen ikasiko du haurrak, bere kabuz. Etapa bakoitzak hurrengoa dakar, eta oinez hasten denerako, oreka dinamika osoa menderatzen duela esan nahi du.


Emmi Pikler

Mugimendua pentsamendua da

Haur txikiarentzat bere izatearen adierazpide osoa da mugimendua. Horrekin espresatzen da, eta areago, mugimenduarekin da. Henri Wallon psikomotrizitatearen aitak honela azaldu zuen: "Psikomotrizitateak erakusten du garapen motorra garapen mentalaren ondorio dela. Beraz, haurra mugitzen, eskailera igotzen, jaisten, ari denean buru-ariketa bat egiten ari da, eta aldi berean bere gorputza lantzen, ezagutzen, proban jartzen, saiatzen, huts egiten eta asmatzen. Garapen motorra, beraz, ez dago soilik garapen mentalarekin loturik, baita emozionalarekin ere.

Taka-taka, eskorga

Gurasoek bi eskuekin helduta oinez ibiltzen irakastea ez bada lagungarri, zer esan merkatuan dauden taka-taka, eskorga, ibiltari, arnes eta antzekoez? Piklerrek dio haur bat gara dadin, libre mugi dadin eta bere gaitasunen erritmora gara dadin, konfiantza eta aukerak emango dizkion heldu bat behar duela. Beraz, baieztapen horren arabera, merkatuan aurki daitezkeen taka-taka, arnes, eta antzeko ibilgailu gehienak lagungarri ez eta oztopo izango dira. Ikuspegi horren arabera, oro har, gailu horiek ez dute haurraren mugimendu librea ahalbidetzen, eta haurrak bere soinaren gainean zut mantentzeko gaitasunik ez duen artean, lagundu beharrean oztopo egingo diote.

Baina haurrak, normalean, gustura ibiltzen dira taka-takan, eta hara-hona mugitzeko aukera daukate. Horrek sarri gurasoak nahas ditzake, pentsa baitezakete haurra hain gustura ikusirik ezin duela txarra izan harentzat. Bestetik, haurrak leku batera iristeko irrika asetzen duenez, ez du bere kabuz iristeko ahalegina bultzatzen. Ibilgailuak ez du oinez ikasten laguntzen, ezta irakasten ere. Haurra ez bada gauza bere kabuz bertikalean egoteko, Chocklerren genesiaren arabera, seinale da lurrean egoteko denbora behar duela. Gailu batek ez dio mesede egingo, ez baitio lagunduko bere gorputza, oinak besoak, hankak, eskuak ezagutzen eta erabiltzen ikasteko.

Merkatuko ibilgailu batzuetan haurra eseri egin daiteke; beste batzuetan, zutik, eskorgari eutsita ibiltzen da. Beren kabuz zutitu aurretik erabiltzen baldin badira halakoak, aldakak eta soina bera prest eduki aurretik bertikaltzen dituzte gailuek umeak. Horrez gain, haurrari une horretan bere garapen faseari dagokion etapa ez bizitzeko oztopoa dakarte, eta esperientzia hori ez bizitzeak segurtasun gabezia eta trebetasun falta ekar dezakete. Gainera, haurrak bere kabuz hartu ezin duen abiada ekar diezaieke taka-taka horiek, eta horrekin, istriputxoak izateko aukera.

Gailu horiek ibiltzen irakasteko tresna baino gehiago jostailu bezala hartzea gomendatzen dute psikomotrizistek, jostailuzko haur-gurditxoen antzera, arrastaka edo bultzaka ibiltzeko, behin oinez euren kabuz ibiltzen direnetik aurrera.

Hiru arrazoi ez esku hartzeko:

Emmi Piklerrek hiru puntutan laburbildu zituen (*Moverse en libertad* liburuan) helduek haurren garapen motorrean ez esku hartzeko arrazoiak:

1. Haurra bere kabuz lortu ezin duen postura batean jartzen badugu, ez diogu aukerarik ematen bere kabuz mugitzeko, ezin baitu beretzat naturala ez den postura hori aldatu. Adibidez, haur txiki bat ahuspez uzten badugu ahoz gora utzi beharrean —non mugi daitekeen, bere oinak uki ditzakeen, bi alboetara eta sabaira begira dezakeen...—, mugitzeko gaitasuna oztopatzen ari gara.
2. Helduak aukeratzen dituen posturak askotan ez dira haurrarentzat naturalak, eta ondorioz, giharrak ere postura ez-naturalean egotera behartzen ditugu.
3. Bere kabuz iritsi ezin duen posturan jartzen dugun haurrak helduaren beharra izango du mugitzeko, lasai posturaz aldatzeko, eta ondorioz, helduarekiko mendekotasuna bultzatzen ariko gara, bere garapen autonomoa bultzatu beharrean.■

Basoak ernatzen

Baso astea antolatu zuen Urkipe eskola. Agenda 30 helburuekin bat eginez. Ekitaldi ezberdinak egin zituzten.

Martxoaren 18an, egunero bezala, eskolan egunean zehar jasotako materia organikoa botatzera joan ziren 5 eta 6 urteko haurrak. Ikasturte honetan, COVID-19a dela eta, haiek hartu dute organikoa botatzeko erantzukizuna. Ardura eta kontzientzia handiz egiten duten lana da.

Hala ere, egun horretan, beste eginbehar bat ere izan genuen. Bi haritz landare landatu genituen eskolako baratzearen inguruan. Helburua da basoak ekosistema moduan duen garrantzia aldarrikatzea, eta, horrekin, herritarrak ohartaraztea basoak, ematen duten zerbitzu ekosistemikoari esker, ezinbestekoak direla gizakien biziraupenerako eta ongizaterako.

Etxeko txikiek ikusiko dute zuhaitz landare horien hazte prozesua, eta, dena ondo badoa, eskola berriaren zelaietan landatzeko asmoa dugu.

Ekitaldia Basoak ernatzen proiektuaren «ale txiki bat da», eta basoaren garrantzia eskola komunitatera zabaldu nahi du.

Martxoaren 21ean izan zen Basoen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, 15etik 18ra bitartean Basoaren Astea egin zen. Horren barruan egin zen landaketa sinboliko hori. Gipuzkoako beste 50 ikastetxerekin batera parte hartu du Urkipe Herri Eskolak, Agenda 2030eko 15. helburuarekin bat etorriz.■

Mendi ibilaldia

Martxoaren 13an, Itsasondoko inguruak ezagutzeko bi mendi buelta antolatu zituen Itturritxiki guraso elkarteak.

Bat, motza: Itsasondoko plaza, Iturrioz baserria, Sarasola, begiralekua, Errezola baserria, Bengoetxea baserria, tren geltokia eta Itsasondoko plaza.

Bestea, luzea: Itsasondoko plaza, Iturrioz baserria, Sarasola, Altzagarate, Bostaitzeta, Abali, Arama eta Itsasondoko plaza.

Parte hartzeko, aurrez aukeratutako ibilbidean izena emateko eskatu zen, COVID-19a dela-eta segurtasun arauak betetzeko. Bi ibilbideak bezperatik markatu ziren.

Goizeko 10:00etan 65 herritar (haur eta heldu) azaldu ziren herriko plazan, eguraldi zoragarriak lagundurik.

Ibilaldia lauko multzoetan edo familia unitateka egin zen, eta irteera ere multzoka egin zen, ibilbidean distantziak mantendu ahal izateko.

Parte hartzaileak goiz pasa ederra egin zuten, inguruaz gozatuz.■

Zaborra, arazo iturri

Birziklatze datu onak ditu herriak: %81, 2019an. Baina oraindik badira aldatu beharreko hainbat jarrera eta ohitura, nola konposta egiteko guneetan hala zaborra sailkatu eta ateratzeko garaian. Herritar jakin batzuek ondo egiten ez dituzten lanak buruhauste eta lan bihurtzen dira beste batzuentzat.

Zaborra arazo bihurtzen ari da herrian azkenaldian. Noiznahi, zabor poltsak agertzen dira, han eta hemen (argazkietan ikusi besterik ez dago); zabor guztiak nahasian biltzen dituzten poltsak: erreka bazterretan, aparkaleku nagusiko edukiontzien inguruetan, beira jasotzeko edukiontzien ondoan, Arzaren borda izan zeneko orubean, geltokiko zaborrontzietan, Arbel-aitz elkarte atzeko zelaian...

Birziklatze emaitza onak ditu Itsasondok. Sasietak emandako datuen arabera, 2019an %69 eraman zen birziklatzera, eta 2020an, %68,8. Portzentaje horri organikoa gehituz gero, %81ekoa da Itsasondon birziklatzen den hondakinen kopurua.

Oro har, oso ondo ari dira herritarrak zaborrak sailkatzen eta birziklatzen, baina, tamalez, badira gehiengoak egiten duen lan ona zapuzten eta hondatzen duten hainbat jarrera: zaborrak nahastuta ateratzen dituzte batzuek; herrian ezarrita dauden konpostaguneetara behar ez diren hondakinak botatzen dituzte beste askok. Eta ohitura horiek kalte egiten diote herritar gehienen ahaleginari.

2013. urtean egin zuen Itsasondoko Udalak zaborrak atez ate biltzeko hautua. Sasietak herrian ziren edukiontziak kendu zituen, beira, arropa, pilak eta erabilitako olioa jasotzeko edukiontziak izan ezik. Eta edukiontziak kenduta, kuboetan atera behar izaten dute herritarrek zaborra. Zabor mota bakoitza ateratzeko egun zehatzak daude: astearteetan, papera eta kartoia; asteazkenetan, ontzi arinak; eta igandeetan, ontzi arinak eta errefusa. Garrantzitsua da egutegi hori errespetatzea, gainerakoan Sasietako langileek ez baitituzte etxe atarietan uzten diren kuboak husten.

Gauza bera gertatzen da bolumen handiko trasteekin ere. Egun zehatza dago haiek ateratzeko: hilabete bakoitzeko bigarren astelehen iluntzea. Sasietako langileek astearte goizetan biltzen dituzte beirako edukiontziaren ondoan utzitako trasteak. Baina bada bolumen handiko trasteak edozein egun eta astetan ateratzen duen jenderik ere. Trasteak ateratzeko eguna ez bada, Sasietako langileek ez dituzte eramaten kalean utzitako trasteak, eta, lehenago edo geroago, udal langileek jaso behar izaten dituzte, garbigunera eramateko. Horrek lan karga ekartzen du udal langileentzat, eta horregatik da garrantzitsua kontuan izatea zein egunetan tokatzen den trasteak ateratzea.

Inori trasteak ateratzeko eguna pasa bazaio, edozein egunetan eraman ditzake Ordiziako garbigunera. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:00etara; larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara.

Zaborrak behar bezala sailkatu eta birziklatu behar dira, ingurumena babestu eta kalteak murrizte aldera. Herritarren jarrera ezkorraren aurrean, zabor behatzaileak eta kontrolatzaileak jarri dituzte hainbat herritan; Hernanin, kasurako. Eta beste hainbat lekutan zabor sailkapena ongi egiten ez dutenei isunak jartzen hasi zaizkie. Penagarria litzateke halako neurriak hartu behar izatea. Halakorik gerta ez dadin, guztion ardura da konpostagailuetako konposta zaintzea eta zaborrak behar diren lekuan eta moduan ateratzea.

OHITURA ONAK

- Ontzi arinak, papera eta errefusa bereizi eta dagokion kuboetan atera.
- Organikoa konpostaguneetara eraman.
- Zaborrak ateratzeko egutegia errespetatu.
- Bolumen handiko trasteak hilabeteko bigarren astelehen iluntzean atera.
- Konpostaguneetara janari hondarra bakarrik bota.

OHITURA TXARRAK

- Zabor guztia poltsa bakarrean nahasita atera.
- Zabor poltsak edonon utzi: erreka bazterrak zein herriko beste hainbat puntu.
- Zaborrak ateratzeko egutegia ez errespetatu.
- Zaborrak errekara bota.
- Konpostaguneetara edozein zabor bota.

Akatsak konpostagailuetan ere

Materia organikoa biltzeko herrian jarritako konpostagailuan ere dena ez da behar bezala egiten. 2018. urtean, organikoa biltzeko sistema aldatzeko apustua egin zuen Itsasondoko Udalak: auzokonpostak jarri zituen martxan. Geroztik, materia organikoa biltzeari utzi zion Sasietak Itsasondon, eta udal langileak arduratzen dira herritarren artean egindako konposta nahastu eta egoera txukunean mantentzeaz.

Berez ordu gutxiko lana izan behar lukeena luzatu egiten da maiz, konpostagailuetan bota behar ez diren zaborrak bereizten eta banan bana ateratzen aritu behar izaten dutelako. Izan ere, konpostagailuetan soilik janari hondarrak bota behar dira, eta askotan, bestelako zaborrak agertzen dira: plastiko zatiak, arrautza kutxak, botikak, preserbatiboak, film gardena, albal papera, belarriak garbitzeko kotoizko txotxak, konpresak...

Janari hondarren artean egoten dira kortxoak eta konposta egiteko poltsa bera ere. Berez, poltsa konpostagarria bada ere, ez da konpostagailura bota behar, Itsasondon biltzen den organikoa ez baita inora eramaten, eta, txikituko ez duen makinarik ez izatean, nekez desegiten da.

Ez da komeni lorategietatik eta baratzeetatik ateratako belar txarrak konpostagailuetara botatzea, ezta moztutako belarra eta adaxkak ere. Horregatik eskatzen zaie herritarrei belar, hosto eta adaxkak poltsa batean jaso eta konposta egiteko gunearen ondoan uzteko.

Konpostagailuetatik kalitate oneko konposta ateratzen da, baina aurrez aipatutako hondakinek guztia izorra dezakete. Horregatik da hain garrantzitsua herritarrek kontzientzia hartzea, eta jan soberakinak edo hondarrak bakarrik botatzea.

KONPOSTAGAILUETARA BOTA DAITEKE

- Fruta eta barazkiak.
- Arrautza oskolak.
- Fruitu lehorren oskolak.
- Fruta hezurrak.
- Hezurrak.
- Ogia.
- Kafe hondarrak.
- Infusio poltsak.
- Opilak.
- Oro har, janari hondarrak eta soberakinak.

KONPOSTAGAILUETARA EZ DA BOTA BEHAR

- Plastikoa.
- Film transparentea.
- Albal papera.
- Kortxoak.
- Paperezko ezpainzapiak.
- Sukaldeko paperez egindako bolak.
- Preserbatiboak.
- Botikak.
- Erratzarekin bildutako zikinkeria.
- Konpresak.
- Eta abar luze bat.



ITSASONDO: 2014-2019 (kg/urteko)						
kg/urteko	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Errefusa	24.620	26.460	23.440	22.420	27.540	28.280
Beira	19.210	16.446	21.502	18.743	15.829	22.512
Papera eta kartoia	21.580	22.380	20.620	19.060	18.260	16.480
Ontzi arinak	25.020	22.580	30.600	28.500	22.720	19.580
Biohondakina	60.400	60.020	53.380	50.700	27.180	20
	150.830	147.886	149.542	139.423	111.529	86.872

ITSASONDO: 2014-2019 (kg/biztanleko/urteko)						
kg/urteko	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Errefusa	37	39	36	35	43	44
Beira	29	24	33	29	25	35
Papera eta kartoia	32	33	31	30	28	26
Ontzi arinak	38	33	47	44	35	31
Biohondakina	91	89	81	79	42	0
	226	219	227	217	174	136



Kulturari hauspoa emanez

Pandemiaren ondorioz, egoera zailak jasan behar izaten ari dira hainbat arlotan. Kultur munduan ere izan du eragina, eta, maila ezberdinean bada ere, sorkuntzan eta produkzioan eragin zuzena izan du.

Itsasondoko kultura lantaldetik argi izan dugu aukera genuen guztia egin egingo genuela, une oro dekretuek ezarritako neurriak betez, eta horretan aritu gara osasun egoera larri hau lehertu zenetik.

Urte hasieran, urteko kultur agenda osatzeko helburuarekin, herritarren nahiak ezagutzeko galdetegi bat zabaldu genuen. Herritarrek adierazitako iritzien arabera osatuz joango gara urteko agenda, kulturari hauspoa emanez eta herri bizitza dinamiko bat sustatuz.

Labur bada ere, kultur galdetegi horretan azalduriko emaitzak partekatu nahi ditugu zuekin:

Hauek izan ziren egindako galderak eta jasotako emaitzak (16 herritarrek parte hartu zuten):

1 Herrian antolatzen diren kultur ekintzetan parte hartzen duzu?

Ekintza gehienetan parte hartzen dut:
10 erantzun, %66,7
Oso ekintza gutxitan parte hartzen dut:
5 erantzun, %33,3
Ez dut parte hartzen: 0 erantzun, %0

2 Herrian antolatzen diren kultur ekintzen antolaketan parte hartzen duzu?

Bai: 6 erantzun, %40
Ez: 9 erantzun, %60

3 Etorkizunean herrian antolatzen diren kultur ekintzen antolaketan parte hartzeko asmorik baduzu?

Bai: 10 erantzun, %66,7
Ez: 6 erantzun, % 33,3

4 Herrian antolatzen diren ekintzak orokorrean egokiak iruditzen zaizkizu?

Batez bestekoa, 6,37

5 Herrian antolatzen diren kultur ekintzetan herritarren parte hartzea nolakoa dela uste duzu?

Batez bestekoa, 4,68

6 Herrian antolatzen diren kultur ekintzak ugariak direla uste duzu?

Batez bestekoa, 5,62

7 Zein kultur espresio sumatzen duzu faltan herrian?

Musika emanaldiak: 8 erantzun, %53,3
Dantza ikuskizunak: 2 erantzun, %13,3
Antzerkia emanaldiak: 2 erantzun, %13,3
Bertso saioak: 1 erantzun, %6,7
Bakarrizketak: 1 erantzun, %6,7
Eskulanak: 1 erantzun, %6,7



8 Beste ekintzaren bat faltan sumatzen duzu?
Ikastaroak, tailerrak, erakusketak, antzerkia eta pelikula emanaldiak.

9 Proposamen zehatzik baduzu?
Haur antzerkia, O!
Bertso saioa, bertso bazkari/afaria
Esne beltza
Elektropatxaranga
What a band
Herriko ekintza askotan musika sartuko nuke (triki, formato txikiak...)
Ibilgailu (motorra edo kotxea) klasikoen erakusketa, edo motorrarekin zerikusia duen beste edozein ekintza.

10 Familia guztiarentzako egokiak diren ikuskizunak lehenetsiko zenituzke, edo adin tarte berezituetan egitea egokiagoa dela uste duzu?
Familia guztiarentzat: 10 erantzun, %62,5
Adinari egokituak: 6 erantzun, % 37,5

11 Adin tarteak zehazten badira, errespetaraziko zenituzke edo partaide eta gurasoen esku utziko zenuke parte-hartzea?
Adin tarteak jartzen badira, errespetaraziko nituzke: 5 erantzun, %31,3
Partaideak edo gurasoek erabaki dezala parte-hartzearen egokitasuna: 11 erantzun, %68,8

12 Zein adin tartetarako sumatzen dituzu faltan aisia ekintzak?
30-55 urte: 4 erantzun, %25
8-16 urte: 3 erantzun, %18,8
0-7 urte, 16-30 urte, 55 urtetik gora: 2 erantzun adin tarte bakoitzak.

13 COVID-19a dela-eta aforo mugak ezarriak dauden honetan, kultur ekintzak egiteko zein toki iruditzen zaizu egokiena?
Frontoia: 7 erantzun, %43,8
Eskola aterpea: 6 erantzun, %37
Kulturgunea; eguraldi ona bada, plazan: bakoitzak 1 erantzun
Besterik: Erretore etxea eta kamioiak aparkatzeko gunea

14 Kultur ekimenak garatzeko zer sumatzen duzu faltan?
Ekimen deigarriak: 5 erantzun, %33,3
Jendeak gehiago parte hartzea: 4 erantzun, %33,3
Espazio egoki bat: 4 erantzun, %33,3
Musika ekipo egoki bat: 2 erantzun, %13,3



Ondorio orokor modura hauek aipa ditzakegu:
– Herrian garatzen diren ekintza kulturaletan, oro har herritar askok ez dute parte hartzen.
– Kultur ekintzen antolaketan jende gutxik parte hartu arren, etorkizunean lan horietan parte hartzeko asmoa azaldu dute zenbait herritarrek.
– Espazio egoki bat ez izatea traba handia da, neurri batean horrek mugatzen baitu zenbait ekimen deigarri egitea.
– Familia guztiarentzako ekimenak egitea lehenetsi da, eta bereziki 30-55 urte bitartekoentzako eskaintza ikusi da faltan.
– Frontoia edo eskola arkupea ikusi dira ekimenetarako leku egokienak.

Faltan sumatu diren ekintzen inguruan eta proposamen zehatzen inguruan, kultura lantaldeak hauek zehaztu ditu:
O! haur antzerkiak eskatzen dituen baldintza teknikoak ez ditugu betetzen. Bertso saioa eta musika emanaldi nahiak batu, eta ekainean bertso musikatu saioa antolatzeko aurreikuspena dago. What a band taldeak bere jarduna utzi du, eta ezingo dira, hortaz, gurean izan, baina blues estiloko musika talde bat ekarriko da, eta bakarlariren bat ere izango dugu. Kontuan izan formatu txikiko emanaldiak lehenetsi behar ditugula, eta espresio ezberdinak izateko aukera izateko, aurrekontua kontuan hartu behar dugula. Herriko ekintzetan musika sartzea oso egokia ikusten da, egoera dela-eta zein ekintza egin ahalko diren ziur ez gauden arren. Gainerako proposamenei urteko agendan lekua egiteko konpromisoa dugu, eta ongi etorria izango da kultur ekimen horiek antolatzen parte hartu nahi duen guztia!



Tere Etxeberria

Tere Etxeberria 71 urteko itsasondoarra da. Bizitza osoa Itsasondon eman du, eta gustuko du bertan bizitzea, baita herriko dinamiketan parte hartzea ere.

Non jaioa zara?
Itsasondon, Intxaurrondo etxean, Beko Kalen.

Eta zenbat senide zarete?
Zazpi.

Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa?
Ni Itsasondon oso gustura bizi izan naiz, eta hala bizi naiz orain ere. Haurtzaroa senide artean oroitzen dut; asko ginen, eta beti zen zerbait egiteko. Ez daukat oroimen txarrik.

Itsasondoko eskola zaharrak ere oroituko dituzu...
Bai. Oso gustagarriak ez ziren, baina joan beharra zegoen. Eskolan ez ziguten gehiegi erakusten, ez da orain bezala. Gehienbat irakurtzen, idazten, matematikaren inguruan... irakatsi ziguten. Hori ikasi genuen, baina hortik aurrera, ezer gutxi.
Denbora asko ematen genuen josten. Kontu horiek ere garrantzitsuak dira, noski; ondo etorri zait gerora. Orokorrean, oroitzapenak onak dira.
Irakasleen artean denetik zegoen; hori bai, guztiak erdaldunak ziren. Ez zigun inork euskaraz egiten. Eta, gainera, euskaraz egiten bagenuen gaztelaniaz egiteko eskatu ohi ziguten. Guk etxean dena euskaraz egiten genuen, baita lagunartean ere.

Asteburuetan etxe inguruan ibiltzen zineten?
Bai, hori da, Itsasondon. Gurasoekin Arama aldera ere joaten ginen, edo Zubin aldera, merienda hartuta.

Haurra zinenetik asko aldatuko ziren herriko festak, ezta?
Gu haurrak ginela, festa handia izaten zen: soinua, herri-kirolak... Orduan abuztuan izaten ziren jaiak, ama birjinaren egunean. Estazioko zubiaren ondoan, hor zegoen plaza, bi etxeen artean, eta han musika jartzen zuten. Oroimen ona daukat. Gustura ibiltzen ginen.

Ama edo amona izateak ez du zerikusirik.

Gau eskola administrazioa ikasi nuen.

Bidaiatzea gustuko dut baino ez ordu askoko bidaiak.

Egungo festak ere gustuko ditut, lagunekin egoteko. Gaur egun irailean dira, motzagoak dira. baina egia da gauza gehiago egoten dela.

Ikasketak amaituta zer egin zenuen?
Beno, zerbait egin behar, eta, josten ikastera joan nintzen, Beasainera, "corte y confección". Gero, gau eskolara joaten nintzen Goierrira, han kontabilitatea-eta ikasi nuen.

Eta zein zen gau eskolen ordutegia?
Ba 18:00etatik 20:00etara-edo egiten genuen. Administrazioko kontuak ikasi nituen, eta, gustura aritu nintzen. Gero ez dit balio izan; izan ere, nire lana ez da hortik joan, baina ikasi nuena baliagarria izan zait.
Gero lanean hasi nintzen. Hemen arraindegi bat jarri zuten, eta bertan hasi nintzen, baina ez nintzen denbora askoan egon; izan ere, gero, Idiazabalen, Patriziorenean lanean hasteko modua izan nuen. Bertan aritu naiz jubilatu arte. Idiazabaletik Legazpira bidali gintuzten, eta gero erretiroa hartu nuen.

Urte batzuk dira erretiroa hartu zenuela?
Bai, 11 urte. 60 urterekin hartu nuen erretiroa.

Eta nola ezagutu zenuen senarra?
Kuadrillan, guk ohitura genuen hemengo lagunekin Zarautzera joateko. Han ezagutu ginen. Gero kontzertuak ere izaten ziren han eta hemen, eta horietara guztietara joaten ginen, eta, horrelaxe.

Gero, seme-alabak. Nola oroitzen duzu garai hura?
Ba bi seme-alaba ditut, beren artean bederatzi urteko aldea dute, eta garai polita izan zen. Haurrak izan nituen, baina lanean jarraitu nuen. Oso gustura ibili naiz beti haiekin, alde batetik bestera. Zaharrena bizikletan ibiltzen zen, leku batetik bestera ibiltzen ginen, karrerak zirela eta. Nik horrela ezagutu ditut herri asko.
Mendira ere askotan joaten ginen, kuadrillan, baita hondartzara ere.

Eskolako haurrekin josten ibili zara, ezta?
Bai, hori da. Oso esperientzia ona izan da. Oso-oso gustura ibili nintzen, eta haiek ere bai. Josten bakarrik ez, sukaldean ere bai, baita plantxatzen ere.
Orain kalean ikusten nautenean agur egiten didate, eta niretzat hori da eskerrik onena. Poz handia ematen dit horrek.

Amona ere bazara. Zein alde dago ama izatetik amona izatera?
Ez du zerikusirik. Ama zarenean beti gainean zaude, beti hor, onerako eta txarrerako. Orain ere hor zaude, onerako eta txarrerako, baina desberdina da. Ardura nagusia gurasoena da; ni ere hor nago, baina hori... Nik ahal dudana egiten dut, lagunduz. Oso-oso gustura laguntzen dut ahal dudan guztian.

Bidaiatzea gustuko duzu...
Bai, oso. Bidaia luze-luze horiek ez zaizkit gustatzen, joan eta gero egunak han pasatzea bai, baina hegazkinean edo autobusean ordu asko ematea, ez. Baina, bai, bidaiatzea asko gustatzen zait.

Eta zein da egin duzun bidaiarik bereziena edo?
Karibera joan ginenekoa. Baina oso luzea izan zen bidaia. Oso-oso ondo pasatu genuen, baina bidaia oso luzea. Egun, urtean behin-edo, Benidormera joatea gustuko dut. Txikitako lagunekin.

Eta baduzu toki bereziren bat joatea gustatuko litzaizukeena?
Veneziara joango nintzateke. Esaten dute orain ez duela merezi, ura-eta zikinagoa dagoelako, baina, tira, joango nintzateke.

Zer duzu gustuko Itsasondotik?
Lagun kuadrilla ona daukat, eta gustuko dut haiekin egotea, dela elkartean, dela Kaxintane tabernan.

Eta zer ez duzu gustuko Itsasondotik?
Gure kalea, Beko Kale, oso-oso utzia dago. Argi oso gutxi dago, eta beste arazo batzuk direla eta, batzuetan beldurra ere ematen du gauez bertatik ibiltzeak. Eskerrak goitik joanda zubia daukagula etxeko portalera, eta askotan hortik joaten naiz.

Herriko dinamiketan parte hartzen duzu: herri-bizitzan, jubilatuen elkartean, herriko festen antolaketan... Nola animatuko zenuke jendea parte hartzera?
Zaila da, oso-oso zaila da. Norberarengan dago. Jendeari parte hartzea eskatuko nioke, bai, baina azken finean, esan bezala, norberarengan dago hori.

Nola ari zara eramaten pandemia egoera hau?
Ondo, gaizki ez, guztiok bezala pentsatzen dut. Ttipi-ttapa, memoria tailerra, gimnasia... moztuta geratu ziren, baina berriro martxan dira, eta hori ondo dago.

Zer eskatuko zenioke 2022. urteari?
Osasuna eta bakea.■

Gazteetan Txindoki inguruan.

Mendi irteera batean Aralar inguruan.

Canarietan oporretan.

Famili liburuko txikitako argazkia.

Reishi eta shiitake onddoak Itsasondoko parkean

Ganoderma lucidum sarritan pipa forma hartzen duen onddo bat da, gogorra eta zurezkoa, zapore mingotsekoa. Mundu osoko klima epeleko eremuetan dago, baita hemen ere, eta, bere prestakinen salmentaren ondorioz, bere japoniar izena (reishi) ospetsu egin da.

Reishi,

Shiitake

Reishia sendagai bezala erabili izan da Asiako hainbat tradizio medikotan, baita duela 2.000 urtetik ere, eta, beraz, esan daiteke sendagaien erabileran historia handieneko onddoetako bat dela. Gaitz asko prebenitzeko edo tratatzeko erabiltzen da, baina haren propietateak behar bezala aztertzeko daude oraindik kasu askotan. Hala ere, frogatu da, besteak beste, B hepatitisa duten pertsonen gibel-funtzioa hobetzen duela, eta badirudi arteria-presio larria duten pertsonen artean arteria-presioa gutxitzen duela, minbizia dutenen nekea gutxitzen duela, eta ondorio onuragarriak dituela tumoreen aurkako jardueran eta sistema immunologikoan.

Shiitake (Lentinus edodes) eroritako edo hilzorian dauden shii (haritza) zuhaitzen enborretan hazten den onddo jangarri bat da, oso preziatua Txinan, Japonian eta Korean duela 2.000 urtetik hona. Gaur egun, shiitake onddoa munduan gehien lantzen diren onddoetan bigarrena da, nahiz eta gurean oraindik gutxi ezagutzen den.

Txinakoa da jatorriz, eta handik Japoniara eta ondoren Estatu Batuetara eta Europara eraman zen, batez ere Holandara. Txanpiñoiak baino haragi gehiago du, eta elikagai iturri ona da.

Antzinako Txinan, medikuek bazuten onddo horren boterearen berri, aberatsa baita kalte zelularraren aurka babesten duten polisakaridoetan, propietate antiinflamatorioak baititu, sistema immunologikoari laguntzen baitiote eta mikrobioei aurre egiteko globulu zurien ekoizpena handitzen baitute.

Bioteknologia modernoan sartu zen lehen onddo medizinala izan zen, eta hainbat kasuri aurre egiteko erabiltzen da: funtzio immunologiko deprimitua (hiesa barne), minbizia, inguruneko alergiak, onddoek eragindako infekzioak, gripea eta ohiko hotzeriak, bronkioen hantura, bihotzeko gaixotasunak, hiperlipidemia (odoleko kolesterol altua barne), hipertentsioa, gaixotasun infekziosoak, diabetesa edo hepatitisa...

Orain bi onddoak haziko dira horretarako plazako parkean prestatu ditugun haritz enborretan. Udaberri honetan txertatuko zaizkie mizelioak, eta hurrengo hilabetetan izango dugu ikusteko (eta dastatzeko) aukera.

Onddo jangarriekin jarraituz, udaleko basoetako pago, haritz eta gaztainondoetan ere hainbat txertatze egingo dira aurten onddoekin. Batzuk jangarriak izango dira, onddo zuria (Boletus edulis) edo boilurrak (Tuber aestivum eta Tuber borchii) bezala. Beste kasu batean, gaztainondoen gaitzei aurka egiteko eta zuhaitzak sendotzeko, Pisolithus tinctorius izeneko mikorriza bat erabiliko da. Mikorrizatzen duten onddoak landareen sustraiekin sinbiosian bizi dira, elkarrekiko onuran, eta, besteak beste, zuhaitz osasuntsuagoak haztea lortzen dute. Hemen ere emaitzak datozen urteetan ikusi eta ondorioak ateratzeko moduan izango gara.■

Maddi Otamendi

Maddi Otamendi Urbiztondo, ordiziarra da. Ez da jaioterritik asko urrundu baino Itsasondon topatu du gustuko bizilekua. Bartzelonan bizi izandakoa da eta hiriko zenbait gauza faltan baditu ere, Itsasondoko lasaitasuna gustuko du.

Noiz etorri zinen Itsasondora?
Duela bost bat urte.

Non bizi zinen lehen?
Bartzelonan eta Ordizian.

Zergatik erabaki zenuen bizitzera Itsasondora etortzea?
Bizi garen baserria berritu eta bertan bizitzeko aukera sortu zitzaigulako.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehenengo egunaz?
Puf... Ez naiz gogoratzen...

Zein lanbide daukazu?
Biologoa naiz.

Ordiziako edo Bartzelonako zeren falta sumatzen duzu?
Kontzertuak, antzerkiak, zinea eta abar eskura edukitzea.

Itsasondoko zer ez zaizu gustatzen?
Landa guneari kasu gutxi egiten zaio.

Eta zer duzu gustuko?
Oso herri lasaia da.

Zein zaletasun dituzu?
Mendian ibiltzea, irakurtzea, jatea...

Janari bat?
Babarrun beltzak.

Edari bat?
Txokolate beroa.

Itsasondo edo Goierriko txoko bat?
Ouduiko sarobea.

Amets bat?
Amesten jarraitzea.

Jaso duzun oparirik bereziena?
Bizitza bera.

Zeri diozu beldurra?
Maite dudan norbait galtzeari.

Zerk sortzen dizu irribarrea?
Gauza askok; irribarre errazekoa naiz.

Itsasondo biziko ez bazina?
Ordizian edo Goierriko beste herriren batean.■

Hogei urtez herriko janari dendaren kargu egon da Lurdes Aranburu. Ia mende laurdeneko jardunaren ostean, denda uztea eta bizimodu berri bati ekitea erabaki du. Laneko azken egunean, ezusteko agur berezia egin zioten herritarrek.

Eskerrik asko, Lurdes

Urte luzez izan da Lurdes Aranburu herriko dendako arduradun: hogei urtez luzez. Oso zaila da lerro gutxi batzuetan jasotzea herriari eta herritarrei egin dien ekarpena, egin duen lana. Beti zintzo, beti apal, behar izan den guztietan esku bat botatzeko beti gertu.

Urte hauetan guztietan, beti lanean, herrian egin diren ospakizunetarako beharrezko osagaiak eskura jarriz, haurren goxoki nahiak asetuz, behar genuena eskatuz... Eta beti eskatutako guztia emanez. Beti, behar zen garairako dena prest. Halakoa baita Lurdes.

Eta, nola ez, herriko jaietan ere ekarpena egin izan du, zinta karrerako bonoak erabiltzen txikienei lagunduz. Ekimenen berri emateko eta iragartzeko ohola jartzen utzi du dendan, eta herri afarietako tiketak eta beste erosteko erreferentzia puntu ere izan da Lurdesen denda.

Lerro hauen bidez, egindako guztiarengatik eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen, Lurdes. Herriak faltan botako zaitu.

Dendako zure azken lan egunean egin genizun agur xume bat, eta lerro hauek ere horixe izan nahi dute: eskertze zuzen bat.

Duela ale batzuk, Itsasondo 2.0 aldizkarian zure elkarrizketa irakurtzeko aukera izan genuen, baina, oraingoan, dendako agurraren harira zure hitzak jaso nahi izan ditugu, labur bada ere zurekin une hau partekatzeko:

Laburtu hitz bakar batean dendako 20 urteetako esperientzia.

Horrela entzunda, "nire bizitza erdia" etortzen zait burua.

Zer izan da jaso duzun hoberena?

Jendearekiko harremana, herritarrekin egin dudan harremana.

Eta zer okerrena bezala?

Ordu pila bat, ordu askoko dedikazioa izan da.

Dendan izan duzun eta ahaztuko ez duzun gertaera umoretsu bat partekatzerik?

Haurrekin pasarte oso politak bizi izan ditut.

Dendan izan duzun eta ahaztuko ez duzun gertaera desatseginen bat partekatzerik?

Lapurretak. Nahiz eta une horretan ez nengoen barruan, izan ditut pare bat.

Zer botako duzu faltan dendatik?

Jendearekiko tratua. Askorekin galdu egingo dut.

Orain denbora librea izango duzu, lehen ez bezala. Zertan emango duzu denbora?

Momentuz, ibili egin nahi dut, eta gero nire gustuko gauzak egiteko aprobetxatu nahiko nuke. Eskulan ikastaroren bat egitea badut buruan, oso gustukoak ditudalako.

Baduzu proiektu zehatzik?

Ez, momentuz ez daukat proiektu zehatzik.

Herrian gehiago ikusiko zaitugu?

Bai, horrela da. Jendearekin egoteko aprobetxatuko dut. Dendan izango ez dudan tratua kalean izango dut.

Azken lan egunean, herritarren eskertze agurra jaso zenuen. Ezustekoa izan al zen? Zer pentsatu zenuen? Nola sentitu zinen?

Erabateko ezustea izan zen: ez nuen espero. Hasieran ikusi nuenean jendea, pentsatu nuen: "Hau marroia". Baina gero atera nintzenean eta hainbeste jende ikusi nuenean, haurrak eta helduak bertan, oso emozionatua eta bereziki maitatua sentitu nintzen.

Lore sortaz gain, gozatzeko opari bat ere jaso zenuen. Zein? Ilusiorik egin zizun? Erabiltzeko aukera izan duzu?

Bai, asko gustatu zitzaizkidan opariak. Oraindik ez dut aukerarik izan Arabako Errioxako Laguardia herriko egonaldia aprobetxatzeko.

Haurren marrazki sorta ere jaso zenuen. Hitz politak baino ez zituzten zuretzat. Espero zenuen halakorik? Gustatu zitzaizun haurrek egindako oparia?

Ez nuen espero, ez, eta asko gustatu zitzaidan. Umeen mezuak beti dira politak; haiekin oso harreman estua izan dut. Zenbat ikusi ditudan jaiotzen eta nerabe egiten!

Herritarrei zerbait esan nahi diezu?

Eman didaten guztia eskertu nahi diet. Ni ere saiatu naiz ahalik eta zerbitzu hoberena ematen haiei.■

Zorionak, Josu!

Izen abizenak:
Josu Sarasola Mugica

Jaiotze data:
1996/02/24

Pozgarria da oso herritar batek txapelketaren bat irabaztea, eta gaurkoan zu zara herritar hori. Herri aldizkari honetan tarte bat egin nahi izan dizugu, zure lorpenaren berri emateko, eta, noski, zu zoriontzeko.

Igeriketan ibiltzen zara. Noiz eta nola hasi ziren?
Itsasondon 6. mailan nengoela hasi nintzen aletekin igeri egiten Ordizian. Nire anaia Gorka hasia zen jada kirol honetan, eta atentzioa asko deitu zidan. Espainiako txapelketa askotara bidaiatzen genuen gurasoekin bera igerian ikusteko.

Monoaletan ibiltzen zara, ezta? Hori da zure espezialitatea?
Bai, monoaletarekin erdi-fondoko distantzietan igeri egitea gustatzen zait; 200 eta 400 metroko distantzietan, hain zuzen ere. Proba horietan, monoaletak bi oinak lotzen ditu, eta zure gorputzaren ondulazioa erabiliz lortzen da aurrera egitea. Distantzia hauetan hainbat diziplina daude; ur azalekoan, tubo batekin arnasa hartzen da, eta eskafandrakoan, aire konprimatuko botila batekin ur azpitik igerian egiten da. Betidanik igeri egin izan dut distantzia hauetan, non erresistentzia eta abiadura nahasten diren.

Zein duzu entrenamendu plana?
Azken bi urteetan Tolosan (Frantzian) egon naiz ikasten, eta bertan entrenatzaile errusiar batekin topo egin nuen. Harekin astelehenetik larunbatera 07:00etan entrenatzen naiz. Horrez gain, astearte eta ostegunetan eguerdian ere entrenamendu bana gehitzen dugu, baita muskulazio saioak ere. Entrenamendu saioak igerilari bakoitzaren beharretara egokituta egoten dira, eta horrek asko laguntzen du betiko akatsak zuzentzen.
Aurten, birusaren kontuarekin, zailagoa izan da entrenamenduak mantentzea, eta batez ere aldakortasunarekin lan egiten ikasi behar izan dugu.

Espainiako txapelketan izan zara irabazle. Nolakoa izan da txapelketa?
Denboraldi bakoitzean Espainiako bi txapelketa izaten dira: negukoa, autonomia erkidegoko selekzio moduan (martxoan), eta udakoa, klub bezala (uztailean). Martxo honetako txapelketa Elxen izan zen, eta ehun partaide izan ginen gutxi gorabehera, selekzio bakoitzak hamalau igerilari eramateko baimena baitzuen pandemia egoeragatik. Aurreko asteburuan, Rennes-en (Frantzian) aritu nintzen lehiatzen, eta horregatik ez nituen nire proba guztiak egin, baina, hala ere, 400 metroko murgilaldiko probarako gogo handia nuen. Proba horretan lortu nuen urrezko domina, nire denbora hobetuta, eta Espainiako markatik bi segundora geratu nintzen. Finalean, Iruñeko eta Kataluniako bi igerilarirekin izan nuen erronka, eta oso gustura geratu nintzen 400 metroak burutu eta denbora ikustean.

Beste erronkarik baduzu buruan?
Maiatzean Frantziako txapelketa izango da Aix-en-Provencen, eta dominaren bat lortzeko lanean ari gara orain, Frantzian maila handiagoa baitago. Espainiako txapelketa uztailean izango da Benidormen, eta, horrez gain, Espainiako selekzioan sartzeko borrokatzen ari naiz munduko txapelketara joan ahal izateko (Tomsken izango da, Errusian). Jada pare bat marka kalifikatibo egin ditut, eta federazioak maiatzean erabakiko ditu selekzioko partaideak.■

Eskerrik asko, artistak

Valdemoron, 2021eko urtarrilaren 25ean

Itsasondoko lagun guztiei:
Kaixo, lagunak. Hemen natorkizue gutun honen bidez nirekin eta orokorrean euskal preso politiko guztiekin elkartasuna adierazi duzuen guztioi, nire eta nire kide guztien izenean, eskerrak ematera. Mila esker!

Hainbat mobilizazio egin dituzue, gure egoera saltzeko eta aldatzeko eskatuz. Eta esan behar dizuet asko eskertzen dudala zuen elkartasun guztia. Zuen berotasuna nire ziega barruraino iritsi da askotan. Horrek nire eta orokorrean herri askapenerako daramagun bide luze honetan indarra eta bultzada izaten jarraitzen du. Gora zuek!

Bide batez, zuen eskaera bat ere badut hemen, eta horri erantzutera animatuko naiz segidan. Izan ere, joan den urrian egin zenuten ekimena biziki hunkigarria egin zitzaidan. Herriko gazte eta haur askok parte hartu zenuten bertan: nire urtebetetze eguna aitzakiatzat hartuz, margoketa lehiaketa egin zenuten. Zuen lanen argazkiak bidali dizkidazue, zuen argazkiekin batera. Mila esker, gazteak!

Esan nahi dizuet erabat hunkigarria egin zaidala zuen ekimena. Oso-oso polita izan da niretzat zuen lanak jasotzea. Artista bikainak zarete denak. Aitortu behar dizuet denak txapeldun izendatzen zaituztedala.

Ezinezkoa da niretzat lan horietatik guztietatik bat bestearen gainetik jartzea. Beraz, ez dut inor irabazle izendatuko. Ez naizelako gai zuen lanak lehian jartzeko. Denak izan dira zuen espresio zintzo eta garbia, eta hori lehia guztien gainetik dago niretzat. Esan bezala, denak txapeldun!

Benetan artista handiak zarete, oso politak zuen lan guztiak. Asko gustatu zaizkit. Sormen handia duzue, haur eta gazte guztiok!

Bihotzez, mila esker denoi. Bukatzeko, herritar maiteak, zuek kanpotik eta gu barrutik bultzaka jarraituko dugu, lehenbailehen denok elkarrekin Euskal Herriko plazetan elkartu arte. Jaso itzazue besarkada eta muxu handi bana Valdemoroko pareten barnealdetik Itsasondoko txoko guztietaraino. Laster arte! Izan ondo, lagunak! Jo ta ke!

Mikel Otegi


VALDEMORON 2021 URTARRILAREN 25
Itsasondoko lagun guztiei:
Kaixo lagunak. Hemen natorkizue gutun
honen bidez, nirekin eta horokorrean euskal
preso politiko guztiekin elkartasuna adierazi
duzuen guztioi. Ni eta nire kide guztien
izenean. Mila Esker!
Hainbat mobilizazio bucutu dituzue, bai
gure egoera salatu, eta aldatzeko eskatuz.
Eta esan behar dizuet asko eskertzen dizuet
zuen elkartasun guztia. Zuen berotasuna
nire ziega barneraño iritxi da askotan. Eta
horrek. Neure eta orokorrean Herri askapenerako
daramagun bide luze honetan indarra eta
bultzada izaten jarraitzen du. ¡GORA ZUEK!
Bide batez zuen eskaera bat ere badut
hemen eta horri erantzutera animatuko naiz
segidan. Izan ere pasaden urrian egin zenu-
ten ekimena. Biziki unkigarria egin zitzaidan.
Herriko gazte eta haur askok parte hartu zenuten
bertan, nire urtebetetze data aitzakitzat hartuz

Euskal Herriko plazetan denak elkartu
zue besarkada eta muxu handi
pareten barnealdetik Itsasondoko
txoko guztietaraiño.
ondo lagunak. JOTAKE!!

hemeroteka

Egiteko aukera zegoena egingo genuela azpimarratu genuen aurreko alean ere, osasun egoerak eskatzen dituen neurriak betez, noski, hilabete hauetan ekimen ugari izan ditugu herrian. Hona hemen hauen kronika.

Preso gaixoen eguna

Pasa den asteazkenean, apirilak 7, Osasunaren Nazioarteko eguna ospatu zen, SARE-k egun hori preso gaixoen egun gisa aldarrikatzeko hautua egin zuen, eta Itsasondon, larunbaterako zenbait ekintza antolatu ziren.

Hasteko Ginkana bat prestatu zuten Iñaki eta Gorka Telleriak, Unai Aldasororen laguntzarekin.

Ginkanan zehar froga ezberdinak jarri ziren eta bertan haurrak gainditzen joan ziren.

Parte hartu zutenei oparitxo ezberdinak eskeini zitzaizkien Mara Aldasoro eta Noa iturriozen eskutik Bikote honek, garbi utzi zuten egun horren helburua zein zen, Mikel gogoan izatea eta etxera ekartzea.

Ondoren, plazan bildu ginen eta SARE-k preso gaixoen egoera ezberdinak zeintzuk ziren azaltzen zuen testua irakurri zen eta guztiok ETXEAN BIZIRIK behar ditugula aldarrikatu zen.

Zuhaitz eguna

Jende mordoxka, eta landatzeko landare eta zuhaixka ugari. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, giro aparta izan zen zuhaitz egunean. Iñaki Aizpururen gidaritzapean, herriko familia ugari bildu zen ekimenean: 45 lagun, hain zuzen. Ingurumenari mesede egiteaz gain, herri bizitza sustatzeko ekimen polita.

Lurdesen agurra

Aldizkarian atal berezia eskaini badiogu ere, hemeroteka atalean ere aipamena egin nahi izan dugu. Giro aparta izan zen agur egunean, emozioak ere pil-pilean. Merezi duzu, Lurdes, eta herriak eskertu dizu. Bejondeizula, eta gozatu biziaz!

Hitzaldia, energia komunitarioa

Itsasondon energia komunitatea sortzeko bidean, beste herrietako esperientziak ezagutzeko aukera eman nahi izan zen hitzaldi horren bidez. Garesko Udaleko ordezkariak izan ziren modu telematikoan, beren herrian garaturiko esperientzia partekatuz. Plazera izan zen egitasmoa gertutik ondo ezagutzeko aukera izatea. Udalaren Youtubeko kanalean ikusgai duzue. **www.youtube.com/watch?v=Fm4k7UWcZ88**

Margo erakusketa

Fatiha Hajji Babaren margolanen erakusketa izan dugu gurean. Emakumea eta aldarrikapena oinarri hartuta, berdintasuna, arrazakeria, emakumeen kontrako indarkeria eta abar azaldu dizkigu bere lanetan. Astebetez izan dugu erakusketa kulturgunean, eta ikustera gerturatu zirenek oso balorazio positiboa egin zuten egilearen lanez.

Emakumeen Eguneko elkarretaratzea

Ohiko legez, herritar talde bat bildu zen Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakumearen ahalduntzearen alde egiteko. Aurten, zaintza erdigunean jartzearen garrantzia azpimarratu da, eta, nola ez, berdintasunaren aldeko pauso irmoak ematearen beharra ere aldarrikatu da.

Otsandreak, helduentzako kontakizunak

Tonu ezberdinak, askotariko kontaketak, sexualak, naturarekin lotuak... denetik eskaini zigun Amaia Zinkunegi kontalariak. Atrezzo gozo batekin, kulturgunea lepo bete zen, eta gustu handiz izan ginen bertaratuok, kontaketez gozatzen. Balorazio galdetegia helarazi zitzaien parte-hartzaileei, eta oso balorazio positiboa jaso zuen. Errepikatzeko modukoa. Ohituak ez gauden arren, helduok, gozatzen dugu mundu magikoetan sartuz ere.

Aulki hutsak

Heriotza eta haren ondorengo dolua tabua izaten da. Ongizate lantaldeak gaia mahai gainean jarri nahi izan du, eta Aulki hutsak dokumentalaren bidez gaiaz hitz egiteko aukera eskaini. Dokumentalaren zuzendaria ere, Iñaki Peña, bertaratu zen solasaldia osatzeko. Hamar lagun inguru elkartu ziren, eta gustuz jaso zuten dokumentalaren edukia eta ondorengo solasaldia.

Gaztaina egurrezko saskigintza

Tradizioak tradizio, Matxinbentan gaztaina egurrezko saskigintzan jarraitzen dute. Saskigintzara gerturatzeko asmoz, tailer bat antolatu zen. Lauko taldeetan izen eman zuten, eta denera 24 lagunek parte hartu zuten. Labur egin zitzaien partaideei tailerra, eta sakontzen jarraitzeko gogoz daude.

Reala, Itsasondon bandera trukaketan

Realaren eta Athleticen arteko finalaren harira, talde txuri-urdinaren autobusa Gipuzkoako herrietatik barrena ibili da. Helburua izan da Realaren bandera utzi eta udalerrietakoa jasotzea. Gurean ere izan ziren, eta udal agintarien eskutik jaso zuten Itsasondoko armarridun bandera. Haurrek ere gozatu zuten.

Liburutegi txokoa

Atal honetan liburutegiko azken berriak azaltzeaz gain, liburu baten gomendioa egingo dizuegu. Badakizue aldizkariaren helburua herritarron parte-hartzea sustatzea ere badela, beraz, aholkatzeko moduko libururik bururatzen bazaizue, bidali proposamena: **itsasondo2.0@itsasondo.eus** helbidera.

Azken liburu berrikuntza hauek izan ditugu liburutegian (Nobedadeak apalean aurkituko dituzue).

Basa
Miren Amuriza

La revolución de los cuidados
Maria Llopis

Dendaostekoak
Uxue Alberdi

Gure basoak
Aranzadi

El mentiroso
Mikel Santiago

La novia gitana
Carmen Mola

La chica salvaje
Delia Owens

La vida mentirosa de los adultos
Elena Ferrante

liburu gomendioa

MIÑAN

Amets Arzallus eta Ibrahima Balde

Susa, 2019 (142 orri)

Gineako hiriburutik Nzerekorera 1.300 bat kilometro daude. Ibrahima han ibili zen hiru edo lau urtez, kamioi batean, gidari batek aprendiz onartu zuelako. Aste batean Konakrytik Nzerekorera joaten ziren, eta hurrengo astean Konakryra itzuli. Egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea. Mediterraneoa zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzen gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertsala. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du. Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da nobela hau, hark ahoz eta Amets Arzallusek letraz idatzia. Berezia duelako zauria, eta berezia kontatzeko manera. Hitz egitean han balego bezala.■

(errezeta)

Kiwi konfitatua banilla-izozkiarekin eta urdaiazpiko karraskariarekin

4 pertsonentzat:

- 2 kiwi
- 500 ml banilla-izozki
- 4 urdaiazpiko xerra
- Digestive edo Oreo gaileten krambleren bat.

Zuritu eta moztu kiwiak laukitxoetan, eta konfitatu su motelean, baso erdi ur eta 100 gr azukre erabiliz.

Kendu, eta hozten utzi.

Labean urdaiazpiko xerrak berotu: minutu bat inguru 180 graduan.

Nahi dugun gaileta mota gehitu ,granulatuan.

Aurkezteko, jarri oinarrian kiwi konfitatua, eta gainean, gaileta hautsa. Jarri banilla-izozki on bateko bola dotore bat.

Amaitzeko, urdaiazpiko xafla gainean; nahi izanez gero, lore jangarriren bat edo almendra-krokataren bat ere bai.

Jateko, urdaiazpikoa gainetik apurtu, eta dena nahastuta jan.■

Juanan Jiménez
Altamira jatetxea. Ordizia
677 293 697

Euskararen aurkako erasoak

Euskarak eraso ugari jasan ditu historian. Hurrengo lerroetan zenbait adibide:

> "Por no entender una palabra de la lengua castellana, el muchachito se ve acosado por los demás, entre los cuales, à pesar de ser todos navarros, no hay otro que conozca la lengua milenaria de Aitor.
> Cuando entramos en la escuela oìmos una algarabía de voces infantiles que dirigiéndose al ilustrado maestro señor Esain le decían, señalando al niño aezcoano, que por vez primera iba à la escuela: ¡es vasco! ¡es vasco! Y se reìan y se burlaban.
> Gracias à que el maestro señor Esain habla el vascuence, y acogió cariñosamente ¡al vasco! Y le hablò con dulzura."

El pensamiento navarro, 21 de Diciembre de 1904.

Ehun urtean lehen aldiz, euskara gehiago entzun da Tolosako kaleetan gaztelera baino

- Tolosako kaleetan euskararen erabilera %49,1ekoa da.
- Azken 34 urteetan erabilerak 20 puntu egin du gora, eta 2019ko datua 1985tik erregistratutako altuena da; lehen aldiz, gaztelaniaren aurretik kokatu da euskara emaitzetan.
- Paradigma aldaketa egon da belaunaldien erabileran: lehen, helduenek erabiltzen zuten euskara gehien, eta, orain, adinean gazteenek.
- Hizkuntzen erabileraren 2019ko kale neurketaren emaitzak aurkeztu dituzte Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosako Udalak. 1985. urtetik, urtero egiten da hizkuntzen erabileraren kale neurketa Tolosan. 2019koan, 3.246 elkarrizketaren eta 8.647 hiztunen informazioa bildu da. Jasotako datuen bolumen handiak ahalbidetzen du fidagarritasun estatistikorako baldintzak bermatzea.

2020ko errenta aitortzeko kanpaina
Internet bidez, telefonoz, ogasunaren egoitzan, banketxean edo aholkularitzan. Aurten ere egin
errenta aitorpena euskaraz!

Kultur Agenda

MAIATZA

1 Langileen nazioarteko eguna.
4, 11, 18 eta 25 Hirugarren adinekoen ariketa fisikoa (16:00)
Tipi-tapa (17:00)
5 Memoria tailerra (18:00)
10 Lurralde batzordea (19:00)
12 Jai batzordea (19:00)
13 Ongizate batzordea (17:00)
18 Maite Franko ipuin kontalaria (17:00)
21 Iker Piris, musika kontzertua (19:00)
27 Bingoa jubilatuenean (17:00)

EKAINA

1, 8, 15, 22 eta 29 Hirugarren adinekoen ariketa fisikoa (16:00)
Tipi-tapa (17:00)
2 Memoria tailerra (18:00)
4 Bertso musikatuak (19:00)
7 Lurralde batzordea (19:00)
9 Jai batzordea (19:00)
10 Ongizate batzordea (19:00)
11 Saguzahar gaua (iluntzean)
18 Buruarin tailerra (19:00)
24 Bingoa jubilatuenean (17:00)
25 Esna zaitez kabaret-a (19:00)
26 Natur ekintza, Oihana Unanueren eskutik.
28 Udalekuak hasi

UZTAILA

6, 13 ,20 eta 27 Hirugarren adinekoen ariketa fisikoa (16:00)
Tipi-tapa (17:00)
5 Lurralde batzordea (19:00)
7 Festa batzordea (19:00)
8 Ongizate batzordea (17:00)
16 Musika kontzertua (19:00)
23 Udalekuak amaitu

! COVID-19a dela eta, baliteke ekintza horietako batzuk ezin egitea. Webgunean eta pantailetan emango da horren berri.

Telefono interesgarriak

Udaletxea	*943 881170*
• *Gizarte Langilea*	
• *Udal Arkitektoa*	
• *Epaitegia*	
Haurreskola	*943 164831*
Herri Eskola	*943 887704*
Arbel-Aitz Elkartea	*943 881339*
Lurdes Janari Denda	*943 885236*
Arrastoa Botika	*943 882148*
Medikuarenean Txanda Hartzeko	*943 007635*
Kaxintane Taberna	*606 756551*
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	*943 880012*
Izaskun Ileapaindegia	*943 160285*
Sasieta	*943 161555*
Traste Zaharrak	*943 161590*
Taxi (Ordizia)	*943 881486*

itsasondo 2.0
Herriko Aldizkaria (((48. zk.))) Maiatza 2021

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhoa Barandiaran
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Emma Martinez
Eskolako irakasleak
Haurreskolako hezitzaileak
Garikoitz Goikoetxea (UEMA)
Guraso Elkartea
Iñaki Aizpuru
Leire Irastorza
Maite Lasa
Mikel Mendizabal
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: SS-297-2010
ISSN: 2171-5572

UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

! GOGORARAZTEN DIZUEGU HURRENGO ALEA UZTAILEAN IZANGO DUZUTELA ETXEAN

Paper birziklatuan egina
trule estudio grafikoa